

## Aramaion, 1999ko irailaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
P. Goenaga, idazkaria,  
H. Knörr, euskaltzainburuordea,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta A. Urrutia euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea,  
A. J. J. Zearreta, ekonomi-eragilea  
B. (2. gaian)  
C. eta R. Badiola, argitalpen eragilea  
(azken orduko gaietan)

1999ko irailaren 24an, Aramaioko uda-  
letxean bildu da Euskaltzaindia bere hi-  
leroko batzarra egiteko. Bilera goizeko  
hamarrak eta erdietan hasi da. Bilduen  
izenak ezkerreko zutabea jasotzen dira.  
Ezin etorria adierazi dute E. Larrek eta J.  
San Martinek.

### *Aurreko batzar-agiria onartzea*

Onartutzat eman da uztaileko bilera-agi-  
ria inongo oharrik gabe.

### *Hil berriak*

Euskaltzainburuak Bernardo Estornes  
Lasa ohorezko euskaltzainaren heriotza-  
ren berri eman die bilduei. Euskaltzain-  
diaren izenean doluminak helarazi zaiz-  
kio familiari. Hileta elizkizunetan ere  
Euskaltzaindiaren ordezkaritza bat izan  
zen.

Hilberri txostenei dagokienez, B. Oihar-  
tzabalek egingo du A. Martinetena eta  
J.M. Satrustegik, berriz, Estornes Lasa-  
rena. Ahal bada, azaroko bilkuran iraku-  
rriko dira.

### *Hizkuntza arauak*

#### *Aurreko zerrendetan zintzilik utzitako zenbait hitz*

*Postura-santu* zerrendan *profitatu* hitzak zein erregimen eskatzen duen finkatzeke geratu zen. Testuetan gehienetan *du* gisa ageri da. Horrela ematea onartu da. *Ipar*. mar-  
kaz gainera *Herr*. ere ezarriko zaio. Orobat egingo da *aprobetxatu* hitzarekin ere da-  
gokion tokian. Kasu honetan *Heg. herr.* oharrez gainera *da/du* erregimena duela esango  
da.

*Santugile-soprano* zerrendan ere erabaki gabe utzi ziren hitz batzuk. Horietako bat  
*segur/seguru* auzia izan zen. Hala ere, datuak eskuetan, badirudi egoera oraindik ere ez  
dagoela behar bezain umotua. *Segur*-ek ez du biderik egin Hegoaldean. Euskaltzaindiak  
ez du bere burua auzi hori erabakitzeko gai ikusten eta, horrenbestez, biak atxikitzea

onartu da. Koherentziaren izenean, hala ere, *segur asko* eta *seguru aski* zerrendatik kentzea onartu da.

Eztabaida honen haritik beste bat sortu da: izenondo gisa nola behar du, *segura* ala *segurra*? Gaur bigarrena izango litzateke nagusi. Baina eztabaidaren ondoren *segura* forma onartu da. Hori adierazteko, '*gauza segura*' adibidea eskainiko da.

*Sesio* hitza Gipuzkoakotzat eman behar ote den ere argitzeko geratu zen. Datuen arabera, hala dela dirudi. Baina Nafarroan ere ezaguna da, A. Ifiigo jaunaren arabera. Horrenbestez, *Gip.* eta *Naf.* markak ezarriko zaizkio. Adiera argitze aldera, berriz, 'lis-karra' esan nahi duela aditzera emango da.

*Solte* sarrerari *aldizkariaren ale solteak* adibidea erantsiko zaio.

Bestalde, *soilik* aditzondoari dagozkion datuak eskatu ditu batzordeak, perpausean dagozkion kokagunea argitzeko. Gauzek aski nahaspilatuak dirudite. *Bakarrik*-ekin ere arazoa dago. Gramatika batzordeari eskatuko zaio arazo hau argi dezala. Satrustegi jaunak, hala ere, argitasunen bat ematea on litzatekeela dio.

### *Hiztegi Batuko Sor-suspertzaile hitz-zerrenda*

Xabier Kintanaren oharren azterketari ekin dio lehenbizi batzarrak. Euskara Batuko batzordeak oharrok aztertzerik ez omen du izan. Horregatik, batzarrak zuzenean aztertu beharko ditu.

*Sorgin(-)orraz* azpisarrera dela eta, 2. adiera gisa ematen dena, *carduus crispus*, ez omen da zuzena. Landarearen izena *sorgin(-)orrazi* da, ohargilearen iritziz. Eztabaida labur baten ondoren, gaia mahai gainean utzi da: batzordeak begiratuko ditu hurrengorako datuak. Gainera, *sorgin* sarrerako azpisarreretakoa adibideak hobeto begiratuko dira hurrengorako.

*Sostor* hitzaren esangura jartzeko eskatzen du Kintanak. *Zoztor* hitza ere bada. Horrenbestez, badirudi *sostor*, *zoztor* txikia edo izango litzatekeela, *ezpala*, alegia. Txostena eskatzea erabaki da.

Zerrendan, *suerte* hitzaren bigarren adieran *Heg.* eta *herr.* oharrak ageri dira. Ohargileak nahiago luke "*h. zori, zorte*" ezartzea. Ez da onartu. Baina *Heg.* marka ezabatzea erabaki da.

*Suge-jan* azpisarrerari leku egitea eskatzen du ohargileak. Hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Sujet* sarreraren adibideak gaizki datoz. Berrito ikusiko ditu batzordeak.

*Susa* sarrerari, aldizkariaren izena gogoan izanik, *e. susara* gehitzeko proposamena dakar Kintanak. Honen beharrik ez da ikusi.

Zerrendatik kanpoko beste ohar bat ere egin du Kintanak. Etxarriko bileran "rito\* e. *errito*" izan zen hizpide. Baina ohargileak dio 1977an onartutako irizpideen arabera, *erritu* behar lukeela. Onartu da oharra eta dagozkion lekuan egingo da zuzenketa.

Ondoren, H. Knörren oharrak aztertu dira.

*Sorkuntza* hitza sartzea onartu da.

Bestalde, lekuz kanpo izan arren, *sor-marka* hitza sartzea eskatzen du Knörrek, *label* eta enparauei lekua kentzeko egokia delakoan. Onartu da. Adibide gisa, honako hau ezarriko da: *gazta honek badu sor-marka*.

*Sorotsi*-ren adiera gisa 'lagundu' ez ezik 'zaindu' ere ezartzea ez da onartu.

*Soseko* sartzea ez da onartu. Dena dela, adibide bat emango da: *hamar sosekoa*.

Knörr jaunak *sotil* sarreran esanahia adieraztea eskatzen du, Leizarragak berak hitz hori adiera batean baino gehiagotan darabilela eta. Adibideak begiratuko dira hurrengorako.

*Espageti*, *estandar* eta *estres* forma onartuak zerrendan jasoak omen dira baina *esprint* falta omen da. Bakoitza bere lekuan ezarriko da.

*Substantibo* hitzaren kategoria finkatzeko (izen eta izenondo?) eskatzen du ohargileak. Gauzak daudenetan uztea erabaki da.

Zerrendan *soberano* forma proposaten da *subirano*-ren kaltetan. Ohargileak, hala ere, dio gaur gehien kurritzen duen forma *subirano* dela. Eztabaidaren ondoren botoera jo da. Hona emaitza: *soberano* formaren alde, zazpi; *subirano*-ren alde, sei; lau boto zuri. Gauzak horrela, ez da zuhurtzat jo forma bat hautatzea. Gainera, gauzak hobeki pentsatuz gero, gaurko usadioari ere bere balioa eman behar litzaiokeela adierazi da. Euskaltzainen batek, berriro botatu beharko balitz, botoa aldatzeko arazorik ez lukeela ere adierazi du. Datu gehiago ekarriko dira hurrengorako eta orduan berriro bozkatuko da.

*Sudur-zapi* hitza eranstea onartu da.

Andres Urrutia jaunaren oharrak izan dira azkenik aztergai.

*Sor* sarreran, ohargilearen iritziz, hobe litzateke esangurarik ez zehaztea. Ez da onartu ezer aldatzea.

*Sorkura* hitzari leku egitea eskatzen du Urrutiak. Dirudienez, Oihenartez aparteko lekukorik ez da. Horrenbestez, ez da onartu oharra.

*Sorraldi* hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da. Gauza bera erabaki da *sortasun* sartzeko eskariari buruz.

*Soslai*-ren baliokidetzat *silueta* ematea ez du ohargileak oso argigarri ikusten. Ez da, hala ere, kontuan hartu oharra, *silueta*-ren kontua lehenago ere tratatua delako.

Zerrendan *sostenidu* hitza baztertu eta ordaintzat *diese* ematen bada ere, *diese* hau ez dago bere lekuan sartua. Sartzea onartu da.

*Sozietate* hitzari ere lekua egitea ongi ikusiko luke ohargileak (*sozietate anonimo* eta antzekoek kurritzen dute, nonbait). Hobeto aztertuko dira datuak eta hurrengorako dagokion txostena ekarriko da.

*Speed*, *spray*, *sprint*, *stand*, *stock* eta antzekoak sartzeari buruz, honako hau izan da onartu dena: *esprint*, *estres*, *estandar* eta *espageti*, forma horretan onartu dira. Gainerako hitzak, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Subrogatu* eta *subrogazio* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

*Suburu*, *tximini*-ren ordain gisa, ez da onartu.

*Sudurkari* sartzea onartu da. *Sudurpeko*, berriz, bigarren itzulirako uztekoztat jo da.

*Horma(-)sugandila sugandila*-ren sarreran ageri da, baina, Urrutiaren oharra kontuan harturik, *horma* sarreran ere sartuko da.

*Suminbera* hitza sartu baino lehen datuak begiratzekotan geratu da batzordea.

*Superabit* hitza lehen zerrendan agertzen bazen ere, orain ez da ageri. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Suposatu* mailegua ez zaio ohargileari premiazkoa iruditzen, ordain egokiak bai baitira. Dena dela, datuak hobeto begiratuko dira hurrengo bilerarako.

*Supositorio* bigarren itzulirako utzi da.

Ondoren, zerrendan aparte utzitako hitzak hartu dira aztergai.

*Sunda* hitzaren adiera argitu beharrekotzat jo zuen batzordeak bere garaian. Izan den elkarrizketaren ondoren, argi geratu da zerrendan ematen den azalpena egokia dela. Beraz, dagoen bezala utzi da.

*Suspertu* ala *zuzpertu* behar den argitzen saiatu dira ondoren euskaltzainak. Tes-tuetako datuak aski orekatuak omen dabilta. *Xuxpertu* ere ageri da. Bozkatu da eta hamabost euskaltzainek eman dute *suspertu* formaren aldeko botoa. Forma hori onartu da, horrenbestez. Erregimenari dagokionez, berriz, *da* formako aditza dela esango da.

Ondoren, Ondarra jaunak *subjuntibo* ala *subjunktibo* behar duen aipatu du. Ematen den arrazoia (hiru kontsonante batera ezin joan daitezkeelakoa, alegia) ez zaio iruditzen ez gogobetekoa ez zuzena: *eransten*, *belztu* eta antzekoak hor dira. Horrenbestez, arrazoi gisa eskaintzen den araua hobeki formulatu beharra ikusi da. Satrustegi jaunak ere esan du behin oinarriak jarritz gero, errespetatu behar direla, eta bere garaian Euskaltzaindiak onartu zuena errespeta dadila. Delako arau horrek ez luke hiru kontsonante, edozein direla, elkartzea debekatuko, *kontsonante +K+T* multzoa baizik. Multzo hau soildua gertatuko da euskaraz, *K* galdu ondoren. Beraz, *subjuntibo*, baina *subjektu*. Horrela onartu da.

#### *Hiztegi Batuko suspirio-suziri zerrenda onartzea*

Aurkeztu diren ohar bakarrak Andres Urrutiarenak izan dira.

Zerrendan *susto* hitzaren ordeztu *ikara* eta *izialdura* hitzak hobetsi direla eta, Urrutia jaunak nahiago luke, *izialdura*-ren ordeztu, Iparraldeko forma baita, besteren bat, erabilera orokorrekoa, ematea. Hala onartu da: **susto** *Heg.* Herr. h. **ikara**, **beldur** gisa emango da.

*Sutargi* hitzari ere leku egitea nahi luke ohargileak, hainbat hiztegitan ageri baita. Txostena prestatuko duela hitz eman du batzordeak. Gauza bera onartu da sail bereko diren *sutontzi* eta *sutantz* hitzei buruz.

Zerrenda honetan eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira ondoren:

*Suspirio/zizpuru* auziaz, *zizpuru* gehienbat Bizkai aldean erabiltzen omen da. Biei leku egitea onartu da. Hauei dagozkien aditzak, berriz, hurrengorako utzi dira.

*Sustar/zuztar* auziaz, badirudi gaurko datuak z-dunaren aldekoak direla. Gauzak aski nahasiak ageri dira, nolana ere. Botoetara jo da: zazpi euskaltzain *zuztar*-en alde; bost *sustar*-en alde; beste bostek zuri bozkatu dute. *Zuztar* onartu da, beraz.

### 2000. urteko aurrekontuak onartzea

Aurrekontu hauen testua aspaldidanik izan dute euskaltzainek. J. J. Zearreta jaunak adierazi du oharrik ez dela jaso, baina agintarien eskuetan ere ez direla jarri nahi izan bilera hau izan arte.

Aurrekontu hauen zenbait xehetasun eman dira eta, besteak beste, informatizatze planari dagozkionak aipatu dira. Plan horren zatirik handiena aurten gauzatuko bada ere, bada zati bat 2000. urterako utzia. Ildo honi jarraituz, P. Goenagak arlo honetan egin diren azken urratsen berri eman du: jadanik abian da programa eta kableatuaz eta gainerako ezarketaz (hardware eta software) eta komunikazioez arduratuko diren enpresak ere hautatu direla ODEI-ren aholkuaz: batetik ELTEC eta bestetik EUSKALTEL.

Charrittonek dio entzuna duela EUSKALTEL aski problematikoa datekeela Nafarroari eta Iparraldeari dagokionez, eta horretaz argitasunen bat eskatu du. J. J. Zearretak erantzun dio kontu hori ere izan dela hizketa gai, eta ez dela inongo arazorik.

Elkarrizketa luzearen barruan epeez ere galde egin da. Kableatuari dagokionez, urriaren 20rako edo amaitua egotea espero da. Gainerakoek, lehen fasekoek behintzat, abenduaren hasierarako ezarrita egon behar dute. Hain zuzen, egun horietan Hizkuntza Politikak antolatu duen Kongresu baterako zerbait egina eduki nahi da. Euskaltzaindiak hitz eman zuen eta hitza betetzen saiatuko da.

### Eskuartekoak

#### *Organització pel Multilingüisme delakoaren eskaria*

J. L. Lizundiak aurkeztu du gaia. *Organització pel Multilingüisme* delako elkarteak Euskaltzaindiaren sinadura nahi luke egin nahi duten kanpainarako, hots, posta-zigiluetan estatu desberdinetako hizkuntza handiak ez ezik beste hizkuntza txikiagoak ere jasotzea. Xabier Kintanaren iritziz, bakoitzak bere kasa egin dezakeenaz gainera, on litzateke Akademia gisa ere zerbait egitea. Merkatu-munduan dagoen monolingüismoa hausten hasteko bide bat izan liteke. A. Urrutiak zuhurtzia eskatuko luke. Proposatzaileekin harremanetan jarri beharko litzateke, IEC-ko jendearekin, adibidez, hitz egin, eta gero hartu egoki ikusten den erabakia, Jagon sailetik pasatu ondoren. Izan ere, eskubidea dugu kanpaina honen atzean zer mugitzen den jakiteko. Hala onartu da.

#### *Ingurumen hitzari eman beharreko "bultzada"*

H. Knörr jaunak gogorarazi du aspaldi onartu zuela Euskaltzaindiak *ingurumen* hitza eta *Hiztegi Batuan* jasoa dagoela. Hain zuzen, Euskaltzaindiak hitz hau ikusten du beste edozein baino egokiago ekologia gaietarako. Hori dela eta, komeniko omen litzateke administrazioan eta ardura dutenei erabaki hau gogoratzea, *erkidego* hitzarekin egin zen bezalatsu. Onartu da proposamena. Gutun bana egingo zaie, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako P. Ormazabal sailburuari, Nafarroako arduradunari, Diputazioetakoei

eta, agian, Iparraldekoiei ere bai, gogoratu *ingurumen* hitza izango litzatekeela “medio ambiente” delakoari erreferentzia egiteko hitz aproposena euskaraz.

### *Azken ordukoak*

Ondarra jaunak Polikarpo Iraizotzen *Hitza lauuko lanak I* delako liburukian isuri diren hutsen zuzenketa-zerrenda banatu die euskaltzainei.

Ondoren, Argitalpen eragilea den R. Badiolak bere ardurapekoen berri eman du.

Angeles. Libanoren *Toponimia Medieval en País Vasco* obraren azken liburuki argitaratua banatu du (H-O bitartekoa). Hurrengoa eta Pedro Yrizarrena ere laster izango omen dute euskaltzainek eskuetan.

*Araua*k saileko hurrengo sorta ere laster izango da. Orobat, Euskaltzaindiak onartutako *Zuberoako herri izendegiarekin* ere ale berezi bat osatu da eta laster izango da kalean.

Bestalde, *Antologia, EGLU - V* eta *OEH*-ren XII. liburukia ere laster izango direla aurreratu du.

### *Krutwig zenaren omenaldia dela eta Greziara egindako ibilaldia*

Grezian helenisten kongresu baten barruan Krutwig zenari omenaldi bat egin zaio joan den hilean. Hori dela eta, irailaren 3tik 8ra bitartean egindako bidaiaren kronika laburbildu die Kintanak euskaltzainei. Kronika horretan, ibilaldiaren berri xehea ematen da, bizitako esperientziak —lurrikara sortzerainokoak, nonbait— ekitaldiak, eta abar. Bera eta Juanjo Zearreta izan dira Euskaltzaindiaren ordezkarri. Beste euskaltzale batzuek ere parte hartu dute omenaldian.

Eta arratsaldeko sei eta erdietan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga